

EBAZPENA, 2017ko otsailaren 10ekoa, Unibasq, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Zuzendariarena, non Tituluak Ebaluatzeko Gizarte- eta Lege-Zientzietako Batzordearen kidea kargutik kendu eta kide berria izendatzen den, Euskal Unibertsitate Sistemaren titulu ofizialen ebaluaziorako Unibasq, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ekainaren 28ko 13/2012 legeari jarraiki.

Unibasq Agentziaren Estatutueta 19.6.b) artikuluan xedatutakoaren arabera (apirilaren 16ko 204/2013 Dekretuaren bidez onartutako estatutuak), Ana Quiñones Escamez andreak Gizarte- eta Lege- Zientziak arloko Titulazioen Ebaluazio Batzordeko kidea izendatzeari (Aholku Batzordeak proposatuta eta Unibasqeko zuzendariaren 2015eko apirilaren 1eko ebazpenaren bidez argitaratuta) uko egin dionez, 204/2013 Dekretuaren 13.5.e) artikuluan esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Ana Quiñones Escamez andrearen Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gizarte- eta Lege- Zientziak arloko Titulazioen Ebaluazio Batzordeko kidea izendatzeari uko egitea onartzea.

Bigarrena.- Aholku Batzordeak proposatuta, Miguel Díaz y García Conlledo Gizarte- eta Lege-Zientziak arloko Titulazioen Ebaluazio Batzordeko kide berria izendatzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 10ean.



EVA FERREIRA

Unibasq, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Zuzendaria